

2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena

(2013ko otsailaren 12ko GAO)

***Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2016ko apirilaren 4an emandako epaiak, besteak beste, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzko azaroaren 17ko 13/2014 Foru Arauaren 2. artikulua eta bost atalak baliogabetu zituen. Baliogabetutako atal horiek 1/2013 Foru Arau honen 5. artikulua eta 4 eta 5 atalak eta baita 9. artikulua ere gehitu zituen.

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

HITZAURREA

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua
2. artikulua. Egiatzapena
3. artikulua. Toki entitate bakoitzaren aurrekontu egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak
4. artikulua. Gastu araua
5. artikulua. Zuzentze neurriak
- 5 bis. artikulua. Plan ekonomiko-finantzarioa
- 5 ter. artikulua. Zerbitzuen kostu efektiboa
6. artikulua. Aurreikusitakotik gorako sarreraren erabilpena
7. artikulua. Diruzaintzako gerakinaren erabilpena
8. artikulua. Gardentasun printzipioaren bideratzea
9. artikulua. Birdimetsionatze neurriak Gipuzkoako toki sektore publikoari aplikatzeko berezitasuna
10. artikulua. Sozietateen eta enpresa-entitate publikoen sorrera

XEDAPEN GEHIGARRIA

Udalak Finantzatzeko Foru Fondora itzultzeko dauden saldoak

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena. Aldatzea 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua, Gipuzkoako Tokiko Ogasunei buruzkoa.

Bigarrena. Arauak emateko ahalmena.

Hirugarrena. Indarrean sartzea

HITZAURREA

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak amaierako hirugarren xedapenaren bigarren apartatuan dioenez, bertan jasota dagoena Ekonomia Itunaren Legean xedatutakoa eragotzi gabe aplikatuko da Euskal Autonomia Erkidegoan.

2012ko urriaren 1eko HAP/2105/2012 Aginduak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan jasotako informazio obligazioak garatzen dituenak, xedapen gehigarri bakarrean dioenez, agindu horretan jasotakoa 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren amaierako hirugarren xedapenean jasotakoari jarraituz aplikatuko zaie Nafarroako Foru Erkidegoari eta Euskal Autonomia Erkidegoari, foru araubidetik eratorritako berezitasunak eragotzi gabe.

Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutakoak, 48. artikuluan, aurrekontu egonkortasunaren arloan koordinazioa eta lankidetzaz ezartzen ditu, besteak beste, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza harremanen printzipio orokor gisa.

Horiek horrela, Ekonomia Itunaren 62. artikulua dioenez, aurrekontu egonkortasunaren arloko lankidetzaz eta koordinazio konpromisoak adostea da, besteak beste, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren funtzioa. Era berean eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko legeriari jarraiki, Herri Finantzen Euskal Kontseiluari dagokio Euskadiko Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen aurrekontu egonkortasunerako helburuak adostea, aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraiki, Euskadiko Autonomia Erkidegorako har daitezen konpromisoen esparruan.

Gainera, toki entitateen eremuan Estatuak une bakoitzean baliatzen dituen finantza-tutoreztako ahalmenak Euskadiko erakunde eskudunei dagozkie, hala jasotzen baitu Ekonomia Itunak 48. artikuluan. Horrek ez du adierazi nahi, inola ere, Euskadiko toki entitateen autonomia araubide erkidea duten toki entitateena baino txikiagoa izango denik.

Bestetik, Batzar Nagusiei dagokie Gipuzkoako toki entitateen finantza tutoretzaren araubidea foru arau bidez erregulatzea, hala jasotzen baitu 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 8. eta 9. artikuluetan.

Horretan oinarrituta, foru arau hau onartzen da, Gipuzkoako toki entitateek aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzean aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruz garrantzitsuak diren alderdiak garatu eta zehazte aldera.

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Foru arau honen xedea da finantza tutoretzaren erabilpenaren barruan ezartzea Gipuzkoako toki sektorearen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari, urteaniztasunari, gardentasunari, baliabide publikoen esleipen eta erabileraren efizientziari, erantzukizunari eta erakunde leialtasunari buruzko printzipioak benetan aplikatzeko beharrezkoak diren prozedurak.

2. **Foru** arau hau aplikatuko zaie:

a) Gipuzkoako udal eta mankomunitateei, bai eta nagusiki diru-sarrera komertzialekin finantzatutakoak ez diren zerbitzuak eman edo ondasunak ekoizten dituzten haien menpeko organismo autonomoei eta erakunde publikoei ere.

b) Gainerako entitate publiko enpresariei, merkataritza sozietatei eta Gipuzkoako toki administrazioen menpeko zuzenbide publikoko gainerako erakundeei, ez badaude aurreko apartatuan jasota, bereziki beraiei buruzkoak diren xedapenei dagokienez.

2. artikulua. Egiaztapena.

1. Aurrekontuen prestaketa, onarpena eta exekuzioa europar araudiarekin bat datorren aurrekontu egonkortasuneko eta finantza iraunkortasuneko esparru batean egingo dira, eta 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak eta foru arau honek jasotakoaren arabera.

2. Tokiko entitate bakoitzerako egiaztatu beharko da esparru horretatik eratorritako helburuak betetzen ote diren, behin haren kontuak bateratu ondoren, finantzaketa ahalmenaren ikuspuntutik, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarrean jasotako definizioari jarraituz.

3. Aurreko 1.2.b) artikuluan aipatutako gainerako entitateei dagokienez, helburu horiek betetzat emango dira behin, banaka hartuta, beren aurrekontuak onartu, gauzatu eta likidatzen dituztenean edo galera eta irabazi kontuak finantza-orekan onartzen dituztenean.

3. artikulua. Toki entitate bakoitzaren aurrekontu egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak.

Diputatuen Kontseiluak, Gipuzkoako Finantzetako Lurralde Kontseiluak aldez aurretik txostena eginda, eta Herri Finantzen Euskal Kontseiluak dituen eskumenen kalterik gabe, urtero ezarriko ditu Gipuzkoako toki entitate bakoitzari aplikagarriak zaizkion defizit eta zorpetze mugak, betiere toki administrazio osoarentzat aurrekontu egonkortasunari eta zor publikoari dagokienez bete beharreko helburuak Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan behin adostuta.

4. artikulua. Gastu araua.

1. Gipuzkoako toki entitate bakoitzerako gastu konputagarriaren bariazioa Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan adostutakora doituko da urte bakoitzerako.

2. Dena den, ez bada betetzen aurrekontu egonkortasunari edo zorrari lotutako helburua, gastu publiko konputagarriaren hazkundera plan ekonomiko-finantzarioan jasotako bideari lotuko zaio.

5. artikulua. Zuzentze neurriak.¹

1. Ez bada betetzen aurrekontu egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu araua, plan ekonomiko-finantzario bat egin beharko da, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan helburu horiek edo gastu araua bete ahal izateko.²

¹ 5 artikulua 4 eta 5. atalak honako arau hurrengo arau honen 2. bi artikulua gehitu dizkio: 13/2014 Foru Arauak, azaroaren 17koak, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru bereizitasunari buruzkoa (2014ko azaroaren 17ko GAO).

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2016ko apirilaren 4an emandako epaiak 13/2014 Foru Arauaren 2.bi artikulua hori baliogabetu zuen.

² 5 artikulua 1. atala aldatu egin du 13/2014 Foru Arauak, azaroaren 17koak, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru bereizitasunari buruzkoa (2014ko azaroaren 20ko GAO).

2.³ Hala ere, toki-erakunde batek urte askotarako inbertsio-proiektu estrategikoei egin behar badie aurre, Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendu ahal izango dio, salbuespen moduan, gehienez ere hiru urteko epean betetzea aurrekontu-egonkortasuneko helburua edo gastu-araua, toki-erakundeak egindako plan ekonomiko-finantzarioak jasotako aurreikuspenekin bat. Era berean, ezinbestekoa izango da plan ekonomiko-finantzarioak hartzen duen epean urte bakoitzeko zor bizia handiagoa ez izatea kontabilitate-egoera bateratuaren arabera likidatutako edota sortutako sarrera arrunten %70 baino.

Aurreko paragrafoan zehazten diren kasuen justifikazioa toki erakundeak prestatu beharko duen memoria batean jaso behar da. Bertan, arrazoitu egin beharko da zergatik den beharrezkoa urte askotarako inbertsio hori eta zer arrazoi dauden proiektu hori udalerrarentzat estrategikotzat jotzeko; gainera, txostenak jaso behar du plan ekonomiko-finantzarioa egiteko beharrezkoa den aurrekontu eta finantza-informazio guztia.

Era berean, zor bizia betetzen ez bada, hori lortzeko epea plan ekonomiko-finantzarioan ezarritako bideari egokituko zaio, eta inoiz ere ez du gaindituko 2020. urteko denbora muga.

3. Bestetik, aurrekontu egonkortasuneko helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztan, entitateko Udaltzarrari komunikazio bat helaraziko beharko zaio, zirkunstantzia hori adierazita, Kontuhartzailtzak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera.

4. Era berean, gastu araua betetzen ez duten entitateek, planaren ordeztan, komunikazio bat aurkeztu diezaioke Udaltzarrari edo organo baliokideari, Kontu-hartzailtzako organoak sinatuta, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, aldi berean baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

a) Aurreko urteko ekitaldiaren likidazioan edo, horren ezean, bere aurreikuspenean, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.

b) Urteko zor publikoko helburua betetzea.

c) Urteko defizit helburua betetzea edo, hala badagokio, ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena izatea.

³ 5 artikulua 2. atala aldatu egin du, 2017ko urtarrilaren batetik aurrerako ondorioekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2017. urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen 2016ko abenduaren 23ko 8/2016 Foru Arauaren Amaierako Bigarren Xedapenak (2016ko abenduaren 30eko GAO).

5. Foru arau honen 3. artikuluan jasotako Diputatuen Kontseiluaren erabakian zehaztu ahal izango dira aurrekontu egonkortasunari, finantza iraunkortasunari edo gastu arauari buruzko helburuetan gerta daitezkeen gehieneko desbideratzearen mugak, hain zuzen plan ekonomiko-finantzario bat egiteko betebeharretik salbuesten dutenak.

5 bis artikulua. Plan ekonomiko-finantzarioa.⁴

1. Plan ekonomiko-finantzarioak entitateko Udalbatzarrari edo organo baliokideari aurkeztuko zaizkio gehienez hilabeteko epean, ez-betetzea egiaztatzen denetik aurrera. Plan horiek Udalbatzarrak edo organo baliokideak onartu beharko ditu gehienez bi hilabeteko epean, horiek aurkezten direnetik aurrera, eta hiru hilabete igaro baino lehen abiatu beharko dira ez-betetzea egiaztatzen denetik aurrera.

2. Onartutako plan ekonomiko-finantzarioak Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaliko zaizkio, horrek jarraipena egin diezaien. Zuzenbidezko 75.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerrien plan ekonomiko-finantzarioak Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu beharko ditu behin betiko, gehienez 2 hilabeteko epean, aurkezten direnetik kontatzen hasita. Epea igaro eta ebazpenik jakinarazten ez bada, ulertuko da plan ekonomiko-finantzarioa behin betiko onartuta dagoela.

3. Foru arau honetako 1.2.a) artikuluan jasotako entitateen banakako planak bateratuta lortuko da plan ekonomiko-finantzarioa, eta entitatearen aurrekontuen moduan emango dira argitara.

4. Plan ekonomiko-finantzarioak gutxienez informazio hau izango du:

a) Jasotako helburua edo, hala badagokio, gastu araua ez betetzearen arrazoiak.

b) Sarrera eta gastuen joerari buruzko aurreikuspenak, zerga eta gastu politikak aldatzen ez direla pentsatuta.

c) Planean jasotako neurrien deskripzioa, kuantifikazioa eta aplikazio egutegia, haiek kontabilizatzeko erabiliko diren aurrekontu partidak edo aurrekontuz kanpoko erregistroak adierazita.

d) Planaren abiapuntu diren ekonomia eta aurrekontu aldagaiei buruzko aurreikuspenak; bai eta aurreikuspen horiek egiteko oinarri moduan erabilitako kasuak ere.

e) Sentsibilitate azterketa bat, ordezeko eszenatoki ekonomikoak kontuan hartuta.

⁴ 5 bis artikulua honako arau honek erantsi du: 13/2014 Foru Arauak, azaroaren 17koak, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru bereizitasunari buruzkoa (2014ko azaroaren 17ko GAO).

5. Artikulu honen 1. eta 2. apartatuetan jasotakoa eragotzi gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiak behar den informazio osagarria eskatu ahal izango du, 30 eguneko epean plana jasotzen denetik aurrera; eta, hala badagokio, neurri osagarriak hartzeko aukera baloratu ahal izango du, besteak beste honako hauek:

a) Toki entitateak garatzen dituen eskumenen iraunkortasuna bermatzen duten neurriak, betiere berezko eskumenak eta eskuordetzaz erabilitakoak ez direnak.

b) Toki entitateak ematen dituen derrigorrezko zerbitzuen kudeaketa integratua edo koordinatua, bere kostuak murrizteko.

c) Toki entitateak ematen dituen derrigorrezko zerbitzuak finantzatzeko sarrerren gehikuntza.

d) Antolaketaren arrazionalizazioa.

5 ter artikulua. Zerbitzuen kostu efektiboa.⁵

1. Toki entitate guztiek, urte bakoitzeko azaroaren 1a baino lehen, eskaintzen dituzten zerbitzuen kostu efektiboa kalkulatu dute aurrekontu orokorraren likidazioan jasotako datuak oinarritzat hartuta; eta, hala badagokio, beraiei lotutako entitateek edo menpeko entitateek onartutako urteko kontuak kontuan hartuta, betiere aurreko lehen ekitaldiari dagozkionak.

2. Zerbitzuen kostu efektiboa kalkulatzeko, kontuan hartuko dira zerbitzuen zuzeneko eta zeharkako benetako kostuak, aurreko apartatuan jasotako gastuen exekuzio datuei jarraituz. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak kostuen kalkulurako irizpideak finkatuko ditu, bere titularraren foru aginduaren bidez; besteak beste, kalitate adierazleak eta udalerraren edo zerbitzuaren ezaugarrien arabera aplikatzekoak diren zuzenketa faktoreak egongo dira.

3. Toki entitate guztiek zerbitzu bakoitzari dagozkion kostu efektiboak jakinaraziko dizkiote Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta horrek jarraipena egin eta argitaratuko ditu.

4. 20.000 biztanletik beherako udalerrietan, baldin eta kostu efektiboen jarraipenaren ondorioz atzematen badu kudeaketa efizienteago bat egiteko neurriak hartu behar direla, Gipuzkoako Foru Aldundiak honako zerbitzu hauen prestazioa koordinatu ahal izango du:

⁵ 5 ter artikulua honako arau honek erantsi du: 13/2014 Foru Arauak, azaroaren 17koak, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru bereizitasunari buruzkoa (2014ko azaroaren 17ko GAO).

- a) Hondakinen bilketa eta tratamendua.
- b) Edateko uraren etxeko hornidura eta hondakin uren ebakuazioa eta tratamendua.
- c) Kale garbiketa.
- d) Biztanle guneeetako sarbideak.
- e) Hiri bideen zoladura.
- f) Herriko argiteria.

Zerbitzuak modu koordinatu batean emateko, ezinbestekoak izango dira eragindako udalaren berariazko adostasuna eta eskaera.

Koordinazio hori lehendik lurraldean dauden kudeaketa partekatuko bideak erabiliz gauzatuko da nagusiki; zehazki, mankomunitate eta kontsortzioen bidez."

6. artikulua. Aurreikusitakotik gorako sarreren erabilpena.

1. Aurreikusitakotik gorako sarrera ez-helburudunen bidez ezin izango da gastu berririk finantzatu, eta osorik erabili beharko dira zor bizia murriztu edo zorpetze eragiketa gehiago saihesteko.

2. Dena den, bai diruzaintza beharreatatik edo bai zuhertasun irizpideengatik, aurreko atalean xedatutakoaren aplikazioa aurrekontuaren likidazioa egin arte geroratu ahal izango da.

7. artikulua. Diruzaintzako gerakinaren erabilpena.

1. Aurrekontu likidazioak gastu orokorretarako diruzaintza gerakin positiboa ekarriz gero, gerakin hori zor bizia murrizteko edo zorpetze eragiketa gehiago saihesteko erabiliko da.

2. Dena den, gastu orokorretarako diruzaintza gerakinik izanez gero, kreditu gerakinen txer-taketak finantzatzeko erabili ahal izango da.

3. Gainera, uneko ekitaldirako finkatutako zor helburua betetzen duten entitateek kreditu gehigarriak finantzatzeko erabili ahal izango dute gastu orokorretarako diruzaintza gerakina.

4. Zorraren helburua betetzen ez den entitateetan, zor bizia murrizteko erabiliko den gastu orokorretarako diruzaintza gerakinak bermatu egin beharko du, gutxienez, norbere plan ekonomiko-finantzarioan ezarritako zor murrizketaren bidea bete egingo dela.

8. artikulua. Gardentasun printzipioaren bideratzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak zainduko du, toki entitateen gaineko finantza tutoretzako eskumena erabiliz, aurrekontu egonkortasuneko eta finantza iraunkortasuneko printzipioak betetzen direla. Hori horrela, Foru Aldundiak, HAP/2105/2012 Aginduaren xedapen gehigarri bakarrari jarraituz gardentasun printzipioa bideratze aldera, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan erabakitako toki entitateen informazioa emango du. Era berean, Foru Aldundiak printzipio horien betetze mailari buruzko txosten bat prestatuko du urtero, eta Batzar Nagusiei helaraziko die.

9. artikulua. Birdimentsionatze neurriak Gipuzkoako toki sektore publikoari aplikatzeko berezitasuna.⁶

Toki Araubidearen Oinarriari buruzko 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak bederatzigarren xedapen gehigarrian jasotako birdimentsionatze neurriak berezitasun hauen arabera aplikatuko dira Gipuzkoan:

1. Mankomunitateek lege horretako 3.1 artikuluko entitateen tratamendu bera izango dute.

2. Bederatzigarren xedapen gehigarri horren 1. eta 2. apartatuetan aipatutako aurrekontu egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak bete ote diren ebaluatzeko, foru arau honetan jasotako irizpideei jarraituko zaie. Horrenbestez, 5. artikuluan jasotako plan ekonomiko-finantzarioa prestatzeko betebeharraren salbuespenak lehenago aipatutako 1. eta 2. apartatuetan ezarritako debekuei ere aplikatuko zaizkie. Era berean, ondare ekarpenak egiteko debekua ez da aplikatuko horiek entitate nagusiaren plan ekonomiko-finantzarioan espresuki jasota badaude.

3. Ondare ekarpenetat hartzen dira toki entitateen gastuen egoeraren 8. kapituluan jasotakoak.

⁶ 9. artikulua hurrengo arau honen 2.bost artikulua erantsi du: 13/2014 Foru Arauak, azaroaren 17koak, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa (2014ko azaroaren 17ko GAO).

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2016ko apirilaren 4an emandako epia 13/2014 Foru Arauaren 2.bost artikulua hori baliogabetu zuen.

4. Bederatzigarren xedapen gehigarriaren 2. eta 4. apartatuetan aipatutako superabitari, oreka finantzarioari edo ustiapen emaitza positiboari buruzko helburuak betetzeko nahiz betetzen ez direnerako jasotako neurriak hartzeko betebeharrak izaera iraunkorra izango dute. Horretarako, helburuak bete izana urtero egiaztatu beharko da ekitaldia ixtean.

5. Salbuespen moduan, Udaltzarraren edo organo baliokidearen erabaki bidez, entitateak desegin eta likidatzeko aurreikusitako neurriak geroratu ahal izango dira, baldin eta horiek hartzeak kalte handiagoa badakar ez hartzeak baino, toki ogasunaren multzoaren finantza iraunkortasuna arriskuan jartzeagatik. Era berean, aipatutako neurri horiek geroratu ahal izango dira ustiaketa-emaitza negatiboaren jatorriak ez badu entitatearen bideragarritasuna arriskuan jartzen etorkizunean.

Zirkunstantzia horiek Kontu-hartzailtzako organoaren txosten baten bidez frogatu beharko dira, eta Foru Aldundiaren adostasuna beharko dute.

10. artikulua. Sozietateen eta enpresa entitate publikoen sorrera.⁷

Enpresa-entitate publikoen bidez edo titulartasun publikoko kapital sozialeko merkataritzako toki sozietateen bidez zuzenean kudeatu ahal izango dira zerbitzu publikoak, bakarrik baldin eta memoria justifikatzaile baten bidez frogatzen bada iraunkorragoa eta efizienteagoa dela kudeaketa modu hori, betiere errentagarritasun ekonomikoari eta inbertsioa berreskuratzeari buruzko irizpideak kontuan hartuta. Horretarako, memoriarekin batera Kontu-hartzailtzako organoaren txostena aurkeztuko da, proposamenen finantza iraunkortasuna baloratuko duena.

Gipuzkoako Foru Aldundiari artikulua honetan aipatutako entitateen sorreraren berri eman beharko zaio.

Xedapen gehigarria.

Udalak Finantzatzeko Foru Fondora itzultzeko dauden saldoak.

Udalak Finantzatzeko Foru Fondoari buruzko 1994ko azaroaren 23ko 15/1994 Foru Arauak 6.4 artikuluan jasotakoari jarraituz geroratu daitezkeen Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldeko saldoak ez dira konputatuko zor publikoko helburua betetzeko edo finantza tutoretza baliatzeko.

⁷ 10. artikulua honako arau honek erantsi du: 13/2014 Foru Arauak, azaroaren 17koak, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru bereizitasunari buruzkoa (2014ko azaroaren 17ko GAO).

Amaierako xedapenak.

Lehen. Aldatzea 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua, Gipuzkoako Tokiko Ogasunei buruzkoa.

Honela aldatzen da Gipuzkoako Tokiko Ogasunei buruzko 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 52. artikulua:

«52. artikulua.

Epe ertain edo luzeko kredituak hitzartzeko eta abalak emateko, oro har, organo eskudunek baimendu beharko dute beren eskumenen eremuaren barruan. Horretarako, kontuan hartu beharko dira defizitari eta zor publikoari lotutako helburuak eta aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko arauditik eratorritako printzipio eta obligazioak. Era berean, erreparatuko zaie eskaera egiten duen toki entitatearen egoera ekonomikoari, amortizazio epeari eta hitzartzekoa den kredituaren mota guztietako baldintzei».

Bigarrena. Arauak emateko ahalmena.

Diputatuen Kontseiluaren Erabakiaz ezarriko dira Gipuzkoako toki entitateek urte bakoitzeko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko jarraitu beharreko arauak, betiere aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko arauditik eratorritako defizitari eta zor publikoari lotutako helburuak betetze aldera. Diputatuen Kontseiluaren Erabakia hartu aurretik Gipuzkoako Finantzen Kontseiluak txostena egingo du.

Halaber, Diputatuen Kontseiluaren Erabakiaz ezarriko dira kasu bakoitzean gastu araua Gipuzkoako toki entitateen finantzaketaren berezitasunei aplikatzeko beharrezkoak diren jarraibideak. Diputatuen Kontseiluaren Erabakia hartu aurretik Gipuzkoako Finantzen Kontseiluak txostena egingo du.

Hirugarrena. Indarrean sartzea.

Foru arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean.